



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2013ko otsailaren 12a

17. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru Lege proiektua, Andosillako Udalak duen 6. poligonoko 840 lurzatiaren parteari dagozkion herrilurretako 84.698 metro koadroren onura publikoa deklaratu eta haien desafektazioa onesten duena (2. or.).
- Foru Lege proiektua, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duena. Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordeak onetsitako irizpena (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da deusezta dezan musika eta arte eszenikoen irakasleen kidegoko zenbait espezialitatetan aldi baterako kontratazioak egiteko izangaien zerrenda berriak osatzeko deialdia onesten duen ebazpena. Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek aurkeztu dute (8. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, jakitekoa Osasuneko kontseilariak berresten ote duen iragan urriaren 25ean emandako erantzuna, galdetu genionean nola bermatu behar zuen Osasunbideak Nafarroako Ospitaleguneko sukaldeak pribatizatzeke lizitazioan ezarritako baldintzak bete zitezten, Bakartxo Ruiz Jaso andreak egina (10. or.).
- Galdera, Nafarroan mendekotasunaren arretarako laguntzak murrizteko arrazoiei buruzkoa, Txema Mauleón Echeverría jaunak egina (11. or.).
- Galdera, Gardentasunari buruzko Legearen ezarpen-mailari eta lege horrekin lotuta abian jarri diren neurriei buruzkoa, Roberto Jiménez Alli jaunak egina (11. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Andosillako Udalak duen 6. poligonoko 840 lurzatiaren parteari dagozkion herrilurretako 84.698 metro koadroren onura publikoa deklaratu eta haien desafektazioa onesten duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko otsailaren 11n egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-teari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2013ko otsailaren 6an hartutako erabakiaren bidez, Nafarroako Parla-mentura igorri du Andosillako Udalak duen 6. poli-gonoko 840 lurzatiaren parteari dagozkion herrilu-rrretako 84.698 metro koadroren onura publikoa deklaratu eta haien desafektazioa onesten duen Foru Lege proiektua.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 158. artikuluan ezarritakoarekin bat, eta Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1.- Andosillako Udalak duen 6. poligonoko 840 lurzatiaren parteari dagozkion herrilurretako 84.698 metro koadroren onura publikoa deklaratu eta haien desafektazioa onesten duen Foru Lege proiektuaren izapidetzea zuzeneko eta irakurketa bakarrekoa izateari buruzko erabakia Osoko Bilkuraren esku jartzea.

2.- Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

3.- Aipaturiko proiektua Nafarroako Parlamen-tuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2013ko otsailaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proiektua, Andosillako Udalak duen 6. poligonoko 840 lurzatiaren parteari dagozkion herrilurretako 84.698 metro koadroren onura publikoa deklaratu eta haien desafektazioa onesten duena

ZIOEN AZALPENA

Andosillako Udalak eskatu du herrilurretako 84.698 metro koadroren onura publikoaren dekla-razioa eta haien desafektazioa, ondoren 142.895,53 metro koadrorekin truke egiteko, Santa Cruz baselizaren inguruan eremu bat sortzeko; izan ere garrantzi handiko tokia da Andosillako bizilagunentzat, bertan erromesaldiak eta errome-riak ospatzen baitira. Etorkizunean, gainera, turis-moaren eta ingurumenaren arloko jarduketak egi-teko asmoa dago.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztai-laren 2ko 6/1990 Foru Legearen 140. artikuluko 5. idatz-zatian xedaturikoaren arabera, Andosillako Udalak eskatzen duen desafektazioaren eremuak lurzati txikiaren mugak gaintzen dituzenez, foru lege bidez onetsi behar da.

1. artikulua. Onura publikoaren deklarazioa.

Andosillako Udalaren herrilurretako 84.698 metro koadroren onura publikoa deklaratu eta haien desafektazioa onesten da. Eremu hori 6. poligonoko 840. lurzatiaren puska bati dagokio. Lur horiek herri ondasuntzat joko dira foru lege honen 2. artikuluko baldintzetan trukea egin arte.

2. artikulua. Zuzenean trukatzeko baimena.

Andosillako Udalari baimena ematen zaio aurreko artikuluan deskribatutako lurren trukea egiteko, honakoekin: 142.895,53 metro koadro, María Jesús Pardo Sádaba andrearen jabetzako-ak, 1. poligonoko 1345. lurzatia (92.054 metro koadro), 1347. lurzatia (20.841 metro koadro) eta

1348. lurzattia (30.000 metro koadro) hartzen dituztenak. Xedea da lurra eskuratzea Santa Cruz ermitaren inguruetan, betiere baldintza hauek betetzen badira:

a) Trukea egiteko itunaren klausula batek xedatu dezala lurra herri ondarera itzuliko direla baldin eta desafektatzera bultzatu zuten xedeak edo desafektazioaren baldintzak desagertu edo bete gabe uzten badira.

b) Itzulketa klausula hori jaso dadila kontratuak formalizatzeko Jabetza Erregistroan inskribatzen diren agiri publikoetan, Andosillako Udalak 2012ko uztailaren 28an onetsitako baldintza agirian agertzen den bezala.

c) Andosillako Udalak herrilurretako 84.698 metro koadro desafektatzeko 2011ko uztailaren 28an onetsi zuen baldintza agirian adierazitako estipulazioak bete daitezela. Eredu hori Andosillako katastroko 6. poligonoko 840. lurzatiaren puska bati dagokio.

d) Bereziki, María Jesús Pardo Sádaba andreak hartutako konpromisoa, bazkalekuaren jabea den aldetik, 1. poligonoko 1345. eta 1347. lurzatiaren

eta 1348. lurzatiaren puska baten gainean, honetarako: baimena emateko eraikinak edo instalazioak egiteko; landaketa berriak errespetatzeko edo ondoko eremuen hobekuntza baimentzeko; ermitan ospakizun ofizialak egin aurreko bi hilabetetan, azientarik ez botatzeko erromerietara joaten direnek erabiltzen dituzten tokietara bazkatzera, eta, azkenik, ahaleginak egiteko, urte guztian, azientak kalterik sor ez dezan instalazioetan edo baldintza higienikoetan.

e) Konpromiso hori islatu beharko da trukea formalizatzen duten eta Jabetzaren Erregistroan inskribatuko duten agiri publikoetan.

Azken xedapenetan lehena. Aplikazio eta garapenerako xedapenak

Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio behar adina xedapen eman ditzan foru lege hau aplikatu eta garatzeko.

Azken xedapenetan bigarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Lege proiektua, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duena

EKONOMIA, OGASUN, INDUSTRIA ETA ENPLEGU BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 139 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordeak onetsitako irizpena, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektuari buruzkoa. Proiektu hori 2012ko azaroaren 16ko 96. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Irizpenari buruz, Osoko Bilkuran, zuzenketa hau defendatzen ahalko da:

– 6. zenbakiko zuzenketa, Bildu Nafarroa parlamentu-taldeak aurkeztua.

Zuzenketa 2013ko urtarrilaren 24ko 9. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2013ko otsailaren 8an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

IRIZPENA

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordeak 2013ko urtarrilaren 31n eta otsailaren 5ean egindako bileretan onetsia.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektua

ZIOEN AZALPENA

Foru lege proiektu honen xedea da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzea, horren zenbait alderdi ukitutuz.

Apirilaren 6ko 7/2010 Foru Legeak Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatu zuen, barne merkatuko zerbitzuei buruzko 2006/123/EE Zuzentaraura

egokitzeko, eta jarduera pribatuan eginiko eskuhartze administratiboen artean sartu zituen aurretiazko komunikazioa edo erantzukizuneko aitortpenaren aurkezpena eta jarduera hasi ondoko kontrolak egitea.

Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko abenduaren 28ko 20/2011 Foru Legearen bidez, lehenago "Establezimenduentzako irekitze eta jarduera lizentziak ematea" kargatzen zituen tasa aldatu zen, eta "alde zuzeneko baimenik edo kontrolik behar ez duten jardueren kasuan baldintzak betetzen direla egiaztatzeko jarduketak egitea" kargatzera pasa zen.

Merkataritza eta zenbait zerbitzu liberalizatzeko premiazko neurri buruzko maiatzaren 25eko 19/2012 Errege Lege-dekretuaren bidez, aurretiazko baimenaren ordez, erantzukizuneko aitortpena edo aurretiazko komunikazioan oinarritutako osteko kontrol-araubidea ezarri zen.

Merkataritza sustatzeko neurri horiek Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legean sartuta, bidezko da, lehenik, hirigintzako eta establezimenduak irekitzeko lizentziak ematea kargatzen duten tasen zergapeko egitatea aldatzea, kontrolerako jardura administratiboak ere har ditzan, lizentziaren ordez erantzukizuneko aitortpena edo aurretiazko komunikazioa eskatzen direnean.

Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ere ukitzen dute liberalizazio-neurri horiek, eta 2/1995 Foru Legeko manuak zergapeko egitateari, subjektu pasiboari eta zergaren kudeaketari buruzkoak aldatzen dituzte.

Zergapeko egitateari gehitu zaio erantzukizuneko aitortpena edo aurretiazko komunikazioa aurkeztea eskatzen duen edozein eraikuntza, instalazio edo obra egitea.

Subjektu pasibo zergadunak eraikuntza egiten ez duenerako, zergadunaren ordezko berri gisa agertzen dira erantzukizuneko aitortpenak edo aurretiazko komunikazioak aurkezten dituztenak.

Kudeaketa fasean behin-behineko likidazioa egitea aurreikusten da, baita erantzukizuneko aitortpena edo aurretiazko komunikazioa aurkezten denean ere.

Azkenik, errepideak, bideak, lur gaineko beste-lako bideak eta erabilera edo aprobetxamendu publiko eta doakoa duten ur jabari publikoko ondasunak luraren kontribuzioari lotzetik libre uzten dituen manua aldatzearen xedea da behin betiko erabakitzea hainbeste eztabaida eta justizia auzitegien erabakien interpretazio ezberdinak sortu dituen auzi bat.

Eztabaidatutako gaia honetan oinarritu da: zer zentzu eman beharko litzaiokeen "aprobetxamendu publiko eta doakoa" terminoari, azpiegiturak "itzalpeko bidesaria" izenekoaren bidez ustiatzen direnean, hau da, erabiltzaileak zuzenean ordaindu ordez, ordainketa zeharka egiten denean, Administrazioak enpresa emakida-hartzaileari ordaintzen dion kanonaren bidez.

Bada, arauak ezarri du halakoetan ere errepideak, bideak, eta abar luraren kontribuzioa ordaintzetik libre uztea daudela, aprobetxamendu horrek erabiltzaileentzat doakoa izan behar duela ohartaraziz.

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamendua-ren Testu Bateginaren 152. eta 153. artikuluetan ezarritakoari jarraikiz, foru lege proiektu honek gehiengo absolutua behar du onetsi ahal izateko.

Artikulu bakarra. 2013ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen manu hauek honela geratuko dira idatzita:

Bat atal berria. 79. artikulua.

"Ordenantza partikularrean bertan hala zehazten denetan, eta ezertan galarazi gabe legeak zenbait tributu kudeatzeko ezartzen dituen erregistro administratiboak, toki entitateek zergadunen erroldak prestatuko dituzte, kontuan izanik, horretarako, interesdunen aitortpenak, toki entitateek beraiek dakizkiten datuak, bai eta ikuskaritza administratiboaren bidez lortutakoak. Zergadunen errolda, behin horrela prestatuta, erregistro iraunkor eta publikotzat hartuko da, eta toki entitateek erabakitzen duten prozeduraren bidez eramanen da, are prozedura mekanikoaren bidez."

Bat bis atal berria. 86.3. artikulua.

"3. Jakinarazpen gabeko zorrak dira jakinarazpen indibidualik behar ez dutenak, subjektu pasiboek jadanik ezagunak dituzten zergadun-erregistro eta -erroldetatik datozelako.

Horrela, errezipo bidez aldira kobratu beharreko tributuetan, behin kasuan kasuko erregistro, errolda, padroi edo matrikulan alta eman eta likidazioa jakinarazi denean, zilegi izanen da hurrengo likidazioak kolektiboki jakinaraztea, ediktu bidez berri emanez, baldin eta likidazio horiek lehengo berdin-berdinak badira edo izan diren aldaketak orokorrak badira."

Bat ter. 100.5.h) artikulua.

"Zoruari eta hirigintza antolamenduari buruzko legeek eskatzen dituzten hirigintza lizentziak ematea, edo kontrolerako jardura administratiboak egitea, lizentzia eskatu ordez erantzukizuneko

aitorpena edo aurreiazko komunikazioa aurkeztea eskatzen denean.”

Bi. 100.5.i) artikulua.

“Establezimenduentzako irekitze lizentziak ematea, edo kontrolerako jarduera administratiboa egitea, lizentzia eskatu ordeztuz erantzukizuneko aitorpena edo aurreiazko komunikazioa aurkeztea eskatzen denean.”

Hiru. 106. artikulua.

“106. artikulua.

Jabari publikoaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziagatik edo zerbitzu berriak osorik edo partez finantzatzeko diren tasak ezartzeko erabakiak hartu beharko dira txosten tekniko-ekonomikoak oinarri direla, zeinetan agerian jarriko baita, kasuan-kasuan, erabilera edo aprobetxamendu horren merkatuko balioa edo zerbitzuen kostuei aurreikus dakiekeen estaltze-maila. Txosten hori kasuko erabakia hartzeko espedientean jasoko da.

Aurreko lerrokadan aipatzen den txosten tekniko-ekonomikoa ez da beharko, baldin eta hartu beharrekoak errealizazio edo eguneratze orokorren ondoriozko erabaki arrazoituak badira, eta, halaber, ez da halako txostenik beharko tasen zenbatekoa murrizten denean ere, salbu eta handia denean dagokion zerbitzuaren kostuaren murrizketa.

Aurreko lerrokadan ezarritakoari dagokionez, joko da murrizketa handia dela, baldin eta aurrekusten bada zerbitzu-kostuaren murrizketa handiago izanen dela tasa ezartzeko edo aldaketa handia egiteko erabakiaren aurre-aurreko txosten tekniko-ekonomikoan aurreikusitako zerbitzu-kostuaren ehuneko 15 baino.

Txosten tekniko-ekonomikorik eza justifikatzeko, gastua kudeatzen duen organoak jasota utzi beharko du, aldatze-erabakia hartzeko espedientean, adierazpen bat, esanen duena murrizketa ez dela handia.”

Lau. (KENDUTA)

Lau bis atal berria. 134.4. artikulua.

“Nafarroako Gobernuak udalez gaindiko balorazio partzialeko ponentzia bat onetsiko du, azpiegitura horiei dagokien lurzorua baloratzeko, Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta Katastroei buruzko azaroaren 21eko 12/2006 Foru Legeko 34. artikuluari jarraikiz.

Ponentzia horrek ezarriko ditu “itzaleko bidesaria” deiturikoak ukitzen dituen Nafarroako autobideei balio bat esleitzeko metodo eta parametro

teknikoak, eta zehaztuko ditu ukitutako udalek aipatu azpiegituren emakida-hartzaile diren enpresei kobratu beharreko zenbatekoak eta horretarako irizpideak.”

Lau ter. 136.d) artikulua.

“d) Eliza katolikoarenak eta legeztatuak onartutako elkarte ez-katolikoak, baldin eta elkarte horiekin badago Espainiako Konstituzioaren 16. artikulua aipagai dituen lankidetzak-akordioetakoren bat, eta, betiere, kulturako badira.”

Lau quater atal berria. 143.2. artikulua.

“2. Udalek, 1. idatz-zatian agertzen diren datuetan oinarrituta, urtero, martxoaren 31 baino lehen, behar diren likidazioak egin eta, tributu-zorrak zein diren zehaztuta, kobrantza-agiriak igorriko dituzte, zerga tasa aplikatu zaion ondasunaren katastrobalioa espresuki adieraziz; eta, 138. artikuluan ezarritakoaren arabera beharpenik aplikatu behar bada zerga oinarrian, zirkunstantzia hori aipatu egingen da, bai eta beharpen horiek noiz arte aplikatuko diren ere. Kobrantza-agirian adierazita egonen da, halaber, tributu-zorra non, zer epetan eta zer modutan ordaindu behar den, bai eta aurkartzeko bideak zeintzuk diren ere.

86.3 artikuluan xedatutakoarekin bat, katastroan alta eman ondorengo likidazioek ez dute jakinarazpen indibidualik beharko, eta kolektiboki jakinarazten ahalko dira horren berri emanen duten ediktuen bidez, baldin eta aurreko zergaldikoekin berdin-berdinak badira edo izan diren aldaketak orokorrak badira. Ediktuetan adierazita egon beharko du zein egunetan amaitzen den aldizkako erreziboa ordaintzeko epea eta zer errekurtso jar daitezkeen likidazioen aurka.”

Lau quinquies atal berria. 143.3. artikulua.

“3. Kasuren batean frogatzen bada, kobrantza-agiriak igorri ondoren, subjektu pasiboa ez dela katastroan titular gisa agertzen zena zergaren sortzapeneko egunean, eginiko likidazioak behin-behinekotzat hartuko dira, eta egin behar ez ziren diru-sarrerak itzuli egingen dira.”

Lau sexties atal berria. 143.4. artikulua.

“4. Subjektu pasiboek ahalmena izanen dute egin zaiezen likidazioa aurkartzeko, eta, horretarako, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 333. artikuluan zehazten diren bideak erabiltzen ahalko dute aurkartzeko bideetako edozein.

Zerga-oinarriari dagokionez, eta ez bada ondasunaren balioa errekurritu, zeina Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta Katastroei buruzko Foru Legearen 21. artikuluan xedatu-

takoaren arabera adierazi edo jakinaraziko baitzen, likidazioaren aurkako errekurtsioan ere aurkaratzen ahalko da katastro-balioa, baina soilik aldatetaren bat izan bada aurre-aurreko zergaldiko lurralde-kontribuzioaren zerga-oinarri gisa hartu zen katastro-balioarekin alderatuta, eta balio-aldaketa hori ez bada izan aldaketa orokorren ondorio.

Idatz-zati honetan aurreikusitako errekurtsoren bat jartzeak ez du aurkaratutako egintzaren exekuzioa etenen.”

Lau septies atal berria. 143.7. artikulua.

“7. Auzirik baldin badago kargapean jarritako ondasunaren edo eskubidearen titularraren inguruan edo haren titulartasunaren inguruan, Tributu Administrazioak katastroetan agertzen direnak jo ahalko ditu halakotzat, eta behin-behineko likidazioak igorriko dizkie; likidaziook aldatu edo behin betiko bihurtuko dira epai judicial irmoa ematen denean edo auzia beste edozein moduren bidez amaitutzat ematen denean.”

Bost. 167. artikulua.

“167. artikulua.

Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga zeharkako zerga bat da, eta haren zergapeko egitatea udal mugapeko edozein eraikuntza, instalazio edo obra egiteak sorrarazten du, horretarako obra- edo hirigintza-lizentzia edukitzea nahitaezko baldintza bada, lizentzia hori lortua izanik nahiz izan gabe, edo erantzukizuneko aitortpena edo aurretiazko komunikazioa aurkeztea nahitaezko baldintza bada, betiere baldin lizentzia-ematea, hura emateko txostena –Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 39. artikuluan xedatutakoaren arabera–, edo kontrol-jarduera badagokio zerga ezartzen duen udalari.”

Sei. 169. artikulua.

“169. artikulua.

1. Zerga honen subjektu pasibo dira, zergadun gisa, Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorraren 25. artikuluan aipatzen diren pertsona fisikoak, pertsona juridikoak edo entitateak, eraikuntzaren, instalazioaren edo obraren jabe direnak, haiek kokatuta dauden higiezinaren jabe izanik nahiz izan gabe.

Aurreko lerrokadako ondorioetarako, eraikuntzaren, instalazioaren edo obraren jabetzat joko da haiek egiteak dakartzan gastuak edo kostua bere gain hartzen dituen.

2. Eraikuntza, instalazioa edo obra subjektu pasibo zergadunak egiten ez duenean, zergadunaren ordeko subjektu pasibotzat joko dira kasuko lizentziak eskatzen, kasuko erantzukizuneko aitortpenak edo aurretiazko komunikazioak aurkezten, edo eraikuntzak, instalazioak edo obrak egiten dituztenak.

Ordezkoak zergadunari eskatzen ahalko dio ordaindutako tributu-kuotaren zenbatekoa.”

Sei bis atal berria. 170.1. artikulua.

“Zerga-oinarria eraikuntzaren, instalazioaren edo obraren kostu erreala izanen da. Ondorio horietarako, ulertuko da kostu erreala dela haren exekuzio materialaren kostua, kasuko proiektuan agertzen diren osagai guztiak barne, baldin eta lizentziaren edo erantzukizuneko aitortpenaren xede den eraikuntza, instalazio edo obrarekiko berezitasunik edo berezko nortasunik ez badute. Ondokoak ez dira zerga-oinarriaren parte izanen: balio erantsiaren gaineko zerga; araubide berezi-tako gisa bereko gainontzeko zergak; eraikuntzari, instalazioari edo obrari lotutako toki izaera publiko-ko gainontzeko ondare-prestazioak, prezio publiko-ak eta tasak; profesionalen ordainsariak; kontratistaren enpresa-irabaziak; eta aipatu exekuzio materialaren kostuz bestelako edozein kontzeptu.”

Zazpi. 171.1. artikulua.

“1. Aginduzko lizentzia ematen denean, erantzukizuneko aitortpena edo aurretiazko komunikazioa aurkezten denean, edo, lizentzia eskatu, eman edo ukatu edota erantzukizuneko aitortpena edo aurretiazko komunikazioa aurkeztu baino lehen, eraikuntza, instalazioa edo obra hasi bada, konturako behin-behineko likidazio bat egingen da, eta honela zehaztuko da zerga-oinarria:

a) Interesdunek aurkeztutako aurrekontua aintzat hartuta, betiere dagokion elkargo ofizialak ikus-ontsia, aginduzko betebeharra denean hori.

b) Aurrekonturik ez dagoen kasuetan eta zerga ordenantzak hala aurreikusten duenean, hartan ezartzen diren indize edo moduluak aintzat hartuz”

Zazpi bis atal berria. 187. artikulua.

“187. artikuluko c) letra kendu da.”

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra, legean berean aurreikusitako ondorioekin.

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da deusezta dezan musika eta arte eszenikoen irakasleen kidegoko zenbait espezialitatetan aldi baterako kontratazioak egiteko izangaien zerrenda berriak osatzeko deialdia onesten duen ebazpena.

BILDU-NAFARROA, ARALAR-NAFARROA BAI ETA IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko otsailaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita deusezta dezan musika eta arte eszenikoen irakasleen kidegoko zenbait espezialitatetan aldi baterako kontratazioak egiteko izangaien zerrenda berriak osatzeko deialdia onesten duen ebazpena.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko otsailaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute, Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Hezkuntza Batzordeak 2013ko otsailaren 6an egindako bilkuran parte hartu zuten Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioko eta "Pablo Sarasate" Kontserbatorioko behin-behineko irakasleen ordezkariak, eta informazioa eman ziguten, batetik, haien egungo lan-egoerari buruz eta, bestetik, Musika eta arte eszenikoen irakasleen kidegoko zenbait espezialitatetan aldi baterako kontratazioak egiteko izangaien zerrendak –bai

musikako irakaskuntza profesionaletan, bai goi mailako ikasketetan irakasteko– deuseztatzen dituen Hezkuntza Departamentuaren Ebazpena aplikatzeak izan ditzakeen ondorioei buruz. Arau horretan, zerrenda berriak eratzeko prozedura ere ezartzen da. Aldaketa horiek, gure iritziz, behar beste arrazoitu gabe egin dira. Egon ez dagoen arazo bat konpontzeko prozesu antzu, alferreko eta bidegabe bat ireki nahi dela uste dugu.

Bestalde, gaur egungo irakasle behin-behinekoak, unean-unean indarrean egon den legedian ezarritako baldintzak betez sartu ziren zerrendetan eta lanpostuetan. Irakasle horiek bete beharreko proba-aldiek eta ebaluazioek ez dute emaitza negatiborik eragin, ezta kasu bakar batean ere; hortaz, kontratatutako irakasleek beren esperientzia profesionalaren bidez eta lanpostu horietan aritzeko eduki beharreko tituluen bidez frogatu dute beren egokitasuna.

Erabaki proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du deusezta dezan musika eta arte eszenikoen irakasleen kidegoko zenbait espezialitatetan aldi baterako kontratazioak egiteko izangaien zerrenda berriak –bai musikako irakaskuntza profesionaletan, bai goi mailako ikasketetan irakasteko– osatzeko deialdia onesten duen ebazpena.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du negoziazio bat abiaraz dezan ukitutako eragileekin, behar den egonkortasunarekin garatze aldera kontserbatorio profesionalaren eta goi mailako kontserbatorioaren hezkuntza proiektua.

Iruñean, 2013ko otsailaren 7an

Foru parlamentariak: Nekane Pérez Irazabal, Miren Aranoa Astigarraga eta Marisa de Simón Caballero

F saila:
GALDERAK

Galdera, jakitekoa Osasuneko kontseilariak berresten ote duen iragan urriaren 25ean emandako erantzuna, galdetu genionean nola bermatu behar zuen Osasunbideak Nafarroako Ospitaleguneko sukaldeak pribatizatzeko lizitazioan ezarritako baldintzak bete zitezten.*BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko otsailaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jasok aurkeztutako gaurkotasan handiko galdera, jakitekoa Osasuneko kontseilariak berresten ote duen iragan urriaren 25ean emandako erantzuna, galdetu genionean nola bermatu behar zuen Osasunbideak Nafarroako Ospitaleguneko sukaldeak pribatizatzeko lizitazioan ezarritako baldintzak bete zitezten.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2013ko otsailaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bakartxo Ruiz Jasok, Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko kideak, Legebiltzarreko Erregelamendu-

ak dioenari jarraiki, Nafarroako Gobernuari honako galdera helarazten dio, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Iragan urriaren 25ean parlamentari honek Marta Vera kontseilariari galdetu zion nola bertan emandako Osasunbideak Mediterránea de Cátering enpresak beteko zituela sukaldean pribatizazio lizitazioan agertzen ziren baldintzak. Bide batez, hitzartutako prezioak ere errespetatuko ote ziren kezka adierazi genuen. Une horretan kontseilariak emandako erantzuna zein izan zen ikusita, honakoa galdetu nahi diogu Osasun Kontseilariari:

Kontseilariak mantentzen al du urriaren 25ean emandako erantzuna? Bereziki, jakin nahiko genuke berresten ote duen lizitazioan agertzen ziren prezioak mantentzeaz, administrazioak egingo zuen kontrol eta jarraipenaz, eta kontratuan agertzen ziren baldintzak ez betetzeak ekarriko zituen ondorioez esandakoa.

Iruñean, 2013ko otsailaren 1ean

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, Nafarroan mendekotasunaren arretarako laguntzak murrizteko arrazoiei buruzkoa.

TXEMA MAULEÓN ECHEVERRÍA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko otsailaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Txema Mauleón Echeverría jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroan mendekotasunaren arretarako laguntzak murrizteko arrazoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2013ko otsailaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Txema Mauleón Etxeberriak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko ondoko galdera egin du, Gizarte Gaietako kontseilari Iñigo Alli jaunak heldu den otsailaren 14ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Nafarroako Gobernuak bi foru agindu onetsi ditu orain dela gutxi (72/2013 eta 732/2012), Nafarroan menpekotasuna duten pertsonen ematen zaizkien laguntzak murrizten dituztenak. Zeintzuk izan dira murrizketa horiek egiteko arrazoiak?

Iruñean, 2013ko otsailaren 11n

Foru parlamentaria: Txema Mauleón Echeverría

Galdera, Gardentasunari buruzko Legearen ezarpen-mailari eta lege horrekin lotuta abian jarri diren neurriei buruzkoa.

ROBERTO JIMÉNEZ ALLI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko otsailaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Roberto Jiménez Alli jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Gardentasunari buruzko Legearen ezarpen-mailari eta lege horrekin lotuta abian jarri diren neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2013ko otsailaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko parlamentari Roberto Jiménez Allik, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko ondoko galdera aurkeztu du, Lehendakaritza, Justizia eta Barneko kontseilariak heldu den otsailaren 14ko Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

Zein da Gardentasunari buruzko Legearen ezarpen maila eta zer neurri abiarazi dira lege horri dagokionez?

Iruñean, 2013ko otsailaren 11n

Foru parlamentaria: Roberto Jiménez Alli

